

Egitasmoaren aurkezpen publikoa:

Uztailak 12, asteazkena, 19:00etan, udaletxeko areto nagusian.


Erakusketa informatiboa:

- Udaletxeko areto nagusian uztailaren 13tik 28ra.
- Uztailaren 14, 18, 20 eta 26an, azalpenak goizez (11:00-13:00) eta arratsaldez (18:30-20:30) erakusketan bertan.

Iradokizunak eta proposamenak:

- Uztailaren 13tik 28ra
- Presentzialki: Udaletxean (asteleheneretik ostiralera, 08:00 -14:30) eta erakusketan.
- Internetez: www.oiartzun.eus / ekarpenak@oiartzun.org

LANDETXEKO ZERBITZU ANITZEKO UDAL EKIPAMENDUA



* INFORMACIÓN EN CASTELLANO: www.oiartzun.eus



OIARTZUNGO
UDALA



ZER DA LANDETXEKO ZERBITZU ANITZEKO UDAL EKIPAMENDUAREN PROIEKTUA?

Udal ekipamendu publiko bat izango da.

Euskara, kultura eta erretiratuen arloetan herrian dauden zenbait beharri erantzungo die.

ZERGATIK eta ZERTARAKO?

- **EUSKARA:**
 - Euskalgintza bateratuta, indarrak batzeko: Udaleko Euskara zerbitzua, UEMA, Ttur-Ttur Euskaltzaleon Bilgunea, Intxixu AEK eta Oiartzun Irratia bertan elkartzeko.
 - Oiartzun Irratiak estudio egokia izan dezan.
- **ERRETIRATUAK:**
 - Gazte Izanak erretiratuen elkartearen irisgarritasun neurriak bermatzeko.
 - Erretiratuek ekintzak egiteko eremu egokia izan dezaten.
 - Oiartzunen 2.000 erretiratu baino gehiago daude
- **KULTURA:**
 - Kultur ekitaldiak egiteko espazio egokirik ez dago gaur egun.
 - Kultur eragileen eta zaleen aspaldiko eskaera da areto duin bat izatea ekintzak egiteko herrian.
- **UDAL ZERBITZUAK:**
 - Gizarte Zerbitzuak gainezka daude: espazio beharra dugu zerbitzu ona eman ahal izateko.
 - Fermiñene hustuta, Gizarte Zerbitzuak hara mugitu ahal izango liriateke.
 - Pleno aretoa gainezka dago: ekitaldi asko egiten dira, eta horietako askorentzako ez da tokirik egokiena.
- **LANDETXE PLAZA:**
 - Plazak dituen arazoak konpontzeko: isuriak, filtrazioak...
 - Bizilagunen bizi-kalitatea hobetzeko.
 - Landetxe plazari bitzta emateko.

NON?

Mendiburu 14 zenbakiaren eremuan.

ZERGATIK HOR?

- Herriaren erdigunean dago, Doneztebe plazatik gertu.
- Aparkaleku publikoetatik eta garraio publikotik gertu dago.
- Landetxe plazarekin harremana sortuko litzateke.
- Gaur egungo eraikinak irtenbide teknikorik ez duelako.
- Arau Subsidiarioek ekipamendurako izendatutako eremua delako.

PROZESUA:

- Iaz**, Udalaren diagnostikoa konpartitu eragileekin.
- Apirila-maiatza**: Erabiltzaile, eragile eta Landetxeko bizilagunekin elkarrizketak beharrei buruzko informazio jasotzeko.
- Aurreproiektua osatu** eragileen ekarpenekin.
- Aurreproiektua partekatu** erabiltzaile eta eragileekin.
- Herritarrekin egitasmoa aurkeztu eta aurreproiektua osatu.**
- Proiektua idatzi.
- Lizitatu.
- Lanak hasi.

AURREPROIEKTUAREN EZAUGARRI NAGUSIAK:

- Hiru solairu izango ditu: Guztira, 780 m² inguru.
- **0. Solairua**: Kultur aretoa: 240 laguntzako eserita edo 400 zutik; biltokiak; kultur ekintza ezberdinak egiteko espazio polibalentea.
- **1. Solairua (260 m²)**: Gazte Izanak elkartea (tailer gelak, bulegoa...). Taberna. Terraza.
- **2. Solairua (260 m²)**: Euskararen Etxea: Udalaren Euskara Saila; UEMA; Oiartzun Irratia; Intxixu AEK; Ttur-Ttur Euskaltzaleon Bilgunea.

